

PROIEKTUA

Garaion



KOKAPENA

Ozaeta, Araba, EH.

HELBURUA

Garaion-en NATURA, SORKUNTZA eta ONDARE SOZIALA lantzen dihardugu 2008tik. Arabako Ozaeta herriko Otaza auzoan dago gure etxaldea; Sorgingunea deitzen diogu, bertan sortzen baitira lau haizetara zabaltzen ditugun ametsak ekintza bihurtuta.

Euskal Herrian **Sortzailetasuna** gizarteratzea, **Natura hobetzeko** jarrera piztea eta **Ondare Soziala berpizteko** gogoia, euskaraz lantzeko jarduerak martxan jartzea da gure xedea.

 @garaion

 @Garaion sorgingunea

 www.garaion.eus

IZAERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Sortzailetasuna : Denok gara sortzaile, denok gara sorgin, horixe da etorkizun hobea eraikitzeko guztiok barruan dugun tresna.

Paisaia hobetzeko jarrera: Sentsibilizazio lanak burutuz, elikadura burujabetzaren alde lan eginaz eta agroekologia landuz

Auzolana: jasotako ondarea, altxorra, dugu auzolana. Auzolana erabiltzen eta bultzatzen dugu. Auzolana sustatu nahi dugu jendartearen garapen osasuntsurako tresna gisa.

Harreman onak: emozioak aintzat hartzen dituztenak; sexualitatearen bizipen anitzak onartzen dituztenak; pertsona bakoitzaren ezaugarri partikularrak errespetatzen dituztenak; goxotasunetik eta errespetutik eraikitakoak; ... Harreman zuzena eta humanismoa dira gure ardatzak.

Euskaraz bizi: Euskaraz sortutako proiektua gara eta euskarari bizigune eta ametsguneak sortu nahi dizkiogu. Hizkuntzen maitale eta identitate guztien errespetatzaile izaten ikasi nahi dugu.

Feministak gara: Gizarte honetako rol maltzurak eta pertsonen arteko harremanetan sortzen ditugun desoreka, potere harreman ezkorak, prekaritate eta pertsonen arteko abusuak desagertzeko hezi nahi dugu

Ekonomika berria: Aberastasunaren banaketa ez lehiakorra eta solidariagoa nahi dugu.



BEHAR SOZIALA eta EGOERA

Euskaraz, sorkuntza lantzeko gogoia, kultur jarduerak garatzeko espazioa, natur edo paisaiaren ezagutza eta hobekuntzan sentsibilizazioa, bizipenak eta konpromisoa bultzatzeko beharrak eta gure arbasoen jakinduria onak berpizteko nahiak abiatu du Garaionen sorrera.

Proiektuan gaur egun martxan dugu **Sorgingunea** edo Sortzeko espazioa sortzaileentzat eta ikusleentzako antzokia, **Haztetxea** edo ofizio zaharberrietuen eskola (Otarregintza garaikidea, Bioeraikuntza, Agroekologia, Kultur gestioa...) eta **Bizipenen etxea** talde edo familientzako egun pasak (sormen tailerrak, zirkoa, antzerkia, ipuin edo zirko eguna, auzolanartean, naturarte jarduerak). Eta taldeentzako **Egonaldietarako Txokoa** gero eta baliabide hobekin eskaintzeko moduan dago.

“
SORTZAILETASUNA
GIZARATERATZEA,
NATURA HOBETZEKO
JARRERA,
ONDARE SOZIALA
BERPIZTEA,
EUSKARAZ.
”

“
Socializar la creatividad, actitud para mejorar la naturaleza y reavivar el patrimonio social, todo ello en euskera.
”

OBJETIVO

En GARAION trabajamos en torno a la NATURALEZA, la CREATIVIDAD y el PATRIMONIO SOCIAL desde 2008. Nuestra casa está en el barrio Otaza de Ozaeta (Araba), es ahí donde creamos nuestros sueños y los convertimos en actividades.

Nuestro objetivo es socializar la creatividad, promover la actitud para proteger la naturaleza y estimular las ganas para reavivar el patrimonio social.

DESCRIPCIÓN

Nuestras principales características son las siguientes: la creatividad, la actitud para mejorar el paisaje (sensibilización, soberanía alimentaria y agroecología), el trabajo comunal (auzolana), las buenas relaciones (que tienen en cuenta las emociones y las características particulares de cada persona), el euskera, el feminismo y la nueva economía.

RETOS

En este momento contamos con el espacio para creadores llamado Sorgingunea y el teatro para los espectadores, Haztetxea (la escuela de los renovados viejos oficios) y Bizipenen etxea (actividades para grupos y familias). También estamos dotando al Egonaldietarako Txokoa (espacio para grupos) con cada vez más medios.